

GIL 101 Sakonetako marearteko zabalguneko multzo geomorfologikoa



Sakonetako eta Mendatako kalen panoramika, Mendatagaineko gailurretik.

Kokapena

- **Koordenatu geografikoak:**

Lat.: 43° 17' 49,7" N
Long.: 2° 18' 56,8" W

- **UTM koordenatuak:**

X: 555.498,64 m
Y: 4.794.041,31 m



Nola iritsi

Itziarko gaineratik (N-634), Deba eta Zumaia artean, Itxaspe auzo eta kanpinera doan bide hartu behar da. Auzo horretara iritsitakoan, Sakonetako marearteko zabalgunea adierazten duten seinaleetaraino jarraitu behar dugu, zementuzko errepidea ixten duen hesiraino heldu arte. Handik, oinez segitu behar da zementuzko pistatik, eta, ondoren, Mendata erreka uretan behera jarraitu.



Aitzuriko leizeak, Andutzeko failako hausturen aldera higatuak.

GILaren deskribapen laburra

Interes geomorfologiko handiko elementu askok osatzen dute Sakonetako abrasio-plataforma. Lehenik eta behin, atentzioa ematen du kostaldearen geometria irregularrak, zeina flyscharen geruzen higadurarekiko erresistentziarekin erlazionatuta baitago. Izan ere, geruza horiek kostaldearen lerroarekiko perpendikularrean daude, eta, higadura diferentziala dela eta, geometria irregularra da, lurmuturrek (kareharriak eta hareharriak) eta senadiak (margak) osatua. Sakoneta eta Mendata kalak dira higadura diferentzial horren bi adibide bikain.

Itsas higadurak eta eragile atmosferikoek eragin handia dute labarretan; hori agerian geratzen da eremu horretako ezaugarri geomorfologiko ugarietan:

- **Sakonetako marearteko zabalgunea** Kantauri itsasoko abrasio-plataforma handienetako bat da. Marearteko zabalguneen eraketako elementu geomorfologiko tipiko guztiak ikus daitezke haren gainean (ezponda hondeatuak, uharriak, gainazal leunduak...). itsaspeko kartografia xehatuan, sei maila berezi dira 6 km-ko distantzian eta 90 m-erainoko sakoneran.
- **Mendatako ur-jauzia** harrapaketa-adibide berezi bat da: kostaldearen atzeratzea errekarara iritsi zen; ur-jauzi txiki bat sortu zen, eta paleoibilgua lehortuta geratu zen (50 metro harago jarraitzen du, labarraren mugaraino).
- **Mendatako luizia** hegal baten lur-jausiaren adibide bikain bat da. Seguruena, lagungarria izango zen Andutzeko failarekin erlazionatutako failak egotea. Luiziaren aurrealdeak 25 m baino gehiagoko lodiera du, eta itsasoak etengabe higatzen du.



Sakonetako marearteko zabalgunea.

- **Aitzuriko leizeak** bi sargune ikusgarri dira, izen bereko labarraren oinean. Andu-tzeko failarekin erlazionatutako hausturen higadura diferentzialaren ondorio dira; Behe Kretazeoko flysch beltza eta Goi Kretazeoko flysch kareduna bereizten ditu faila horrek.
- **Sakonetako hondartzak** oskol-forma ia perfektuko geometria du, eta bi lurmutu-rrek babesten dute. Lurmutur horiek baldintzatzen dute, korronteen norabidearekin eta olatuekin batera, hondarraren, legarraren eta harkoskorren banaketa hondar-tzan. Sedimentu meheenak (hondarra) ekialdean kokatu ziren pixkanaka, Aizkaiztoko lurmuturraren babesean; legarrak, berriz, ohikoagoak dira mendebaldean, eta ener-gia-gradiente garbi bat markatzen dute hondartzaren barruan.

Behatzeko punturik onena

Mendatagaineko behatokia edo GIL guztia zeharkatzen duen interpretazio-bidea. Abra-sio-plataformara jaisteko, kontuan izan behar dira mareak. Izan ere, marea goian dagoe-nean, erabat estalita geratzen da abrasio-plataforma.

Erlazionatutako GILak

- **Geografikoki:** GIL 23, GIL 25, GIL 27, GIL 28, GIL 43, GIL 45, GIL 48, GIL 102, GIL 103, GIL 119, GIL 135.
- **Gaiari dagokionez:** GIL 23, GIL 90, GIL 92, GIL 94, GIL 95, GIL 99, GIL 100, GIL 102, GIL 103.



Mendata errekaetoaren argazkia, labarretik egina.

GIL-aren balorazioa

Balorazioa		Baxua	Ertaina	Altua	Oso altua
Interes zientifikoa	Geomorfologikoa				●
	Hidrogeologikoa				
	Tektoniko/Estrukturala				
	Estratigrafikoa				
	Paleontologikoa				
	Petrologikoa				
	Mineral-hobiak				
	Beste batzuk				
Interes ekonomikoa (erauzketa)			Iraganean	Potentziala	Martxan
Interes kulturala:					
Oharrak:	Eremuak, halaber, interes estratigrafiko eta paleontologiko handia du. Izan ere, EAEko Goi Kretazeoko flysch kareduneko sekziarik onena da. Dena den, flysch hori GIL 27n aztertuko da.				

Bibliografia espezifikoa

- Hilario, A. (2012): *El biotopo del Flysch*. GFA.
- Hilario, A. et al. (2010): *Flysch Algorri Mendata*. GFA.